ELKARRIZKETA: TOMAS ERRARTE, OILO HAZLEA


# Arrasate PRESS

2000.eko abenduaren 22a
522. zenb.





# Olentzero gurera etorri da


EUROPCAR
Autoen Alokairua
MONDRAGON
ARRASATE
EUROPCAR
DAGOENEKO
ZURE HIRIAN
DAGO.
Hotel Mondragon. Biteri etorbidea, 16. Tel.: 943 792 482
Europcar
AUTO BAT ALOKATZEA BAINO GEHIAGO.

## urteurrenak

### Zorionak Iñaki

■ **45. zenb.**
*(1989.12.22)*

Abenduaren 13an Iñaki Mendigurenek Cafe Iruñea saria eskuratu zuen, *Altzak badu bihotzik* eleberriarekin.

### Euskara sustatzeko hitzarmena

■ **45. zenb.**
*(1989.12.22)*

Euskara batzordeak eskatu zien Arrasateko Udalari eta herriko hainbat ikastola eta elkarteri lan-arloan eta profesionalean euskararen erabilpena areagotzeko hitzarmena sinatzea.

### Sebero Altube beka

■ **45. zenb.**
*(1989.12.22)*

Arrasateko Udalak Sebero Altube beka sortu zuen, euskara batzordearen eskutik. Bekaren helburua Arrasateko euskararen ikerketa linguistiko globala egitea zen. Lana egiteko 700.000 pezetako aurrekontua onartu zen, eta hamalau hilabeteko epea.

### Euskaltzaindia Mondragoen

■ **45. zenb.**
*(1989.12.22)*



Euskaltzaindiko ordezkariak Mondragoen izan ziren. Izan ere, urtarrilean Jose Letonaren artxiboa ikertzeko talde bat bidaltzekotan ziren.

### Bake epaitegia

■ **45. zenb.**
*(1989.12.22)*

Legearen aginduz, abenduaren 28tik aurrera, ordura arte barruti-epaitegiak izan zirenak bake-epaitegi izendatu zituzten.

### Jose Luis Elkoro

■ **45. zenb.**
*(1989.12.22)*

«Gu Madrilera joatea denontzat da interesgarria, guretzat zein beste alderdientzat. Horrela, arazoak konpontzen joateko lehen pausoak emango dira».

## besteek esana

« Nik daukat herrian laguntasuna, ze inork baldin badauka laguntasuna herrian ni naiz. Jende askok laguntzen dit, animoz, berba egin eta preguntau. Eta hori gauza ederra da. (…). Pena horiek guztiak emakume batentzat latzak dira. Haiek kondena ordaintzen ari dira, baina guk horrenbeste sufritzea ere! Humanidadea ez dakit nondik sortzen den! (…). Edade txarra dauka, 55 urte ditu eta ez familia formetetako ez lanean sartzeko ez dago edade onean. Irten eta, zer? Lanik gabe… nora doa gizarajoa? Bai, etxera. Eta etxean, zer? Derrigor samatu beharko dugu zerbait»

**Joxepa Arregi**
**ZAZPIKA**
*(2000.12.10)*

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE** PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
**Arrasate Irratia:** 943 71 17 31

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Marijo Deogracias. **Kazetariak**: Ubane Madera eta Leire Kortabarria. **Publizitatea**: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:**: Sergio Azkarate. **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua**: Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemailea:** Lorea Agiriano . **Banaketa arduraduna**: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**ARRASATE** PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE** PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala**: Nerea Ugalde.

*Arrasateko Udalaren laguntzaz* | *Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz* | *Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz*

## aurkibidea

- Lehen begiratua . . . . . . . . 3
- Asteko hitzorduak . . . . . . . 4
- Inkesta . . . . . . . . . . . . . . 5
- Astearen errepasoa. . . . . . 6
- Orain eta hemen. . . . . . 8/9
- Aurrez aurre . . . . . . . 10/11 **Tomas Errarte**
- Txutxumutxuak . . . . . 12/13
- Gabonetako hitzorduak . . . . . . . . . . . 15
- Asteko gaia **Olentzero Marrazki Lehiaketa 2000** . . . . 17/19
- Gabonetako txutxumutxuak . . . . . . . . 21
- Zaldibar areto futbola. . . . . . . . . . 22
- Eskola-kirola . . . . . . . . . . 25
- Kirolak jokoan. . . . . . 26/27
- Kulturaren txokoa . . . . . . . . . . . 28/29
- Uhinetan barrena . . . . . . 31
- Dena auto . . . . . . . . 32/33
- Foto zaharra . . . . . . . . . . 34



# asteko **hitzorduak**

## ordutegiak

Gabon jai egunetan herriko zerbitzu batzuek ordutegi berezia izango dute. Aste honetan eta datorrenean, udaletxea 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Gazte Bulegoa 10:00etatik 14:00etara izango da zabalik, abenduaren 27tik urtarrilaren 5a arte; Sexologia Zerbitzua, 10:00etatik 13:00etara, abenduaren 28an eta urtarrilaren 4an; Monterron 22tik 25era, biak barne, 30ean, 1ean eta 6an itxita egongo da. Musakolako kiroldegiak goizez zabalduko du 22an; itxita egongo da 25ean eta 1ean; eta Iturripeko kiroldegia itxita egongo da 22an ere.

## kabalgatarako **jendea behar**

Hiru erregeek 14 urtetik gorako lagunak behar dituzte kabalgatan parte hartzeko. Nahi izanez gero, abenduaren 27an izango den entsegura aurkeztu besterik ez duzu. San Viator Handin izango da, 19:30ean.



## uraren eta **zaborren zergak**

Zabalik dago aurtengo hirugarren hiruhilabeteko uraren eta zaborren zergak ordaintzeko epea. Otsailaren 15a arte egin ahal izango duzue. Egun hori baino geroago ordaintzen dutenei %20ko gainkargua kobratuko zaie.

## aekren **kale bilkura**

Abenduaren 22an, Txerri eta Errementari dantzen ondoren, kale bilkura egingo du AEK-k, *AEK aurrera, euskara aurrera, erasorik ez* lelopean.

## ZERBITZUAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualatorioa .......... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ............ 943 79 39 00
(emakumeak) ........ 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

**Larrialdiak**
SOS Deiak .................. 112
Gurutze Gorria ....... 943 76 55 76
DYA ................ 943 78 71 57

**Anbulatorioak**
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11
Astelehenetik
larunbatera .... 17:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan ........... egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
ostiralera ..... 08:00etatik 17:00etara
Larunbatetan . 09:00etatik 17:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria ... 943 03 52 50
• Espezialitateak ....... 943 03 53 11
• Ikuskatzailea ......... 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: ... 943 03 53 11
Aretxabaleta ......... 943 79 74 58
Aramaio ............ 945 44 53 40

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

**Ertzaintza**
Arrasate ............. 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea .......... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa ................ 900 40 05 23
..................... 943 79 78 44
..................... 943 79 76 78

**Garraioak**
Taxiak .............. 943 79 12 22
PESA ................ 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentroak**
Iturbide Egoitza ........ 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**
Monterron ............ 943 77 01 05

## MEZAK

**San Joan parrokia**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| **19:00** (elebiduna) | **09:00** (gaztelaniaz) |
| | **11:00** meza nagusia (euskaraz) |
| | **12:30** (elebiduna) |

**San Frantzisko eliza**

| | |
|---|---|
| **Larunbata** | **10:00** (gaztelaniaz) |
| **19:00** (elebiduna) | **11:00** meza nagusia (euskaraz) |
| **Igandea** | **12:30** (gaztelaniaz) |
| **09:00** (euskaraz) | **19:00** (gaztelaniaz) |

**Uribarri parrokia**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| **19:00** (elebiduna) | **11:30** (euskaraz) |
| | **12:30** (gaztelaniaz) |

**San Andres eliza**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| **19:00** (elebiduna) | **10:00** (elebiduna) |
| | **11:00** (euskaraz) |
| | **12:00** (gaztelaniaz) |
| | **13:00** (gaztelaniaz) |

**Santa Teresa eliza**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| **19:00** (elebiduna) | **10:30** (gaztelaniaz) |
| | **11:30** San Isidron (euskaraz) |
| | **12:30** (gaztelaniaz) |

**Santamañako eliza**

| Jaiegun bezpera eta larunbata | Igandea |
|---|---|
| **19:00** (gaztelaniaz) | **12:00** (gaztelaniaz) |

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

**Egubakoitza, 22**
• Azkoaga, Ferrerias

**Zapatua, 23**
• Azkoaga, Iturriotz

**Domeka, 24**
• Korkuera, Musakola

**Astelehena, 25**
• Irizar, Erguin

**Martitzena, 26**
• Amezua, Santa Marina

**Eguaztena, 27**
• Zabala, Zarugalde

**Eguena, 28**
• Ruiz, Maalako Errabala


LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

ILEA
Ferrerias. 943 79 87 62

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

# Zenbat diru gastatzen duzu Gabonetan?

*Aparteko soldata eta ohikoa gastatuko omen dugu Gabonetan.*



**Maria Etxebarria**
**(81 urte)**
**Erretiratua**

Oso gutxi; bakarrik bizi naiz, eta ahizpak eta ilobek gonbidatzen naute. Loterian, 2.500 pezeta.



**Jose Maria Salegi**
**(44 urte)**
**Langilea**

40.000 pezeta; erregalu gutxi batzuekin xahutzen ditut. Beraz, hortik gora gastatzen dut.



**Angel Rienda**
**(15 urte)**
**Ikaslea**

Oparien eta parranden artean, 5.000 pezeta.



**Beatriz Larrañaga**
**(50 urte)**
**Etxekoandrea**

Janariak eta opariek xurgatzen dute dirua: 50.000 eta 60.000 artean, nire kasuan.



**Miguel Angel Cid**
**(35 urte)**
**Langilea**

80.000 edo 90.000 pezeta artean. Eskatzen dizkidaten oparien arabera, gutxiago edo gehiago gastatzen dut.



**Mª Angeles Arriolabengoa**
**(44 urte)**
**Langilea**

Askorik ez. Oparitan, bikotekideari, bi seme-alabei... Anaien eta ahizpen artean 'lagun ikusezina' jolasa egiten dugu.



**Julio Zeziaga**
**(74 urte)**
**Erretiratua**

Emaztea eta biok bizi gara, baina Gabonetan hamaika lagun elkartzen gara, eta horiendako opariak erosten diru dezente gastatzen dugu.



**Anuska Elortza**
**(27 urte)**
**Langilea**

Janaritan, ezer ez. Erregalutan eta parrandan, 60.000 pezeta inguru.

**ORTO + LAGUN**
O R T O P E D I A
- Gurpildun aulkiak
- Ohe artikulatuak, gaixoak eramateko garabiak
- Komun-aulkiak
- Eskaren aurkako aire eta ur koltxoiak

**Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34**

MARKO-JARTZEAK
**ALDEDI**
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

## USTEAK USTE

### *Gabonetako postalak*

**Aste honetan Gabonetako hainbat zorion agur jaso ditugu ARRASATE PRESSen. Eta eskertzekoak dira guzti-guztiak. Hala ere, ia guztiak elebidunak direla esan gabe ezin naiz gelditu. Euskara hutsez bakarrik jarduten dugu eta zorion agurrik gehienak gure bezeroengandik jaso ditugu. Jakin badakit enpresek zorion agurrak ateratzen dituztenean, hainbat lekutara bidaltzeko izaten direla, eta agian, euskaraz ez dakiten askok jasoko dituztela. Baina, ez dira, ba, Arrasatetik ateratzen? Eta orduan, ezin dira euskara hutsean egin? "Gabon zoriontsuak edo urte berri on!" edo antzeko esaldiak ulertzeko ez da askorik behar, eta horrelako egunetan, gutxiago, elkarri ulertzeko aukera eman behar diogulako eta horrelako gauzak...**

**Ba horixe, neuk ere gauza bera eskainiko dizuet. Baina gogoratu, urtarrilaren lehenenan, urte berria izan edo ez, ez dela ezer aldatuko, esfortzurik egiten ez badugu.**

**Ondo pasa Gabonak eta formalak izan gero! Ala hori urte osoan egin behar izaten da gero ikatzik ez ikusteko?**

**Marijo Deogracias**

## astea bi hitzetan

**■ Europako Zigilua 2000**
Arrasateko CIM hizkuntza akademiari Europako Zigilua 2000 saria eman diote. Espainiako bost erakundek ere jaso dute sari hori. CIM akademiak irakaskuntza eta eleaniztasunaren esparruan egindako lana saritu du Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioak.

**■ Arizmendi sariak**
Arizmendi Ikastolak, proiektua komunikabideen aurrean aurkeztu ondoren, ekitaldi ofiziala egin zuen eguenean Amaia antzokian. Gainera, lehenengo aldiz, Arizmendi sariak banatu ziren. Berebiziko lana egin duten sei laguni eman diete Arizmendi saria: Gizabide Fundazioko lehendakari izandako Alfonso Gorroñogoitia eta Jesus Mari Errastiri, batetik, eta Hezibideko lehendakari izandakoei, bestetik: Jabier Erdoziari, Jose Luis Madinagoitiari, Antonio Mendikuteri eta Adrian Zelaiari, hain zuzen. Ekitaldia amaitzeko Maite Iridin abeslariak saioa eskaini zuen.

**■ Justizia euskararentzat**
1.000 Baietz kanpaina amaitzeko mahai ingurua izan zen pasa den eguenean udaleko areto nagusian. Justizia euskararentzat izenburupean, euskararen egoera aztertu zuten Abel Muniategik Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordeak, Nekane San Migel epaileak eta Endika Garai abokatuak.

**■ Kale bilkurak**
Herriko hainbat zinegotzik eta herritarrek bat egin zuten Juan Jose Ibarretxe lehendakariak egindako deialdiarekin, eta Terrassan izandako hilketaz protesta egin zuten eguaztenean Herriko Plazan. Gauza bera egin zuten beste hainbat herritarrek arratsaldean, Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta.

**■ Sinadura bilketa**
Mondragoeko presoei elkartasuna eskaintzeko, gutunak batu ziren egubakoitzean Arbolapetan. Gabonetara begira, berriz, euskal presoei elkartasuna adierazteko ekimen gehiago izango dira. Abenduaren bukaeran, adibidez, gose greba egingo da Euskal Herriko hainbat herritan, eta Mondragoen ere badute egiteko asmorik.

**■ Istripua Garagartzan**
Derby 50 markako ziklomotor batek eta Laguna 2000 markako auto batek aurrez aurre jo zuten eguaztenean Garagartzan. Ondorioz, ziklomotorreko gidaria beste auto baten kontra joan zen. Kolpe ugari, baina arinak, izan zituen eta eskualdeko ospitalera eraman zuten. Bera izan zen zauritu bakarra.




**■ Jai Komisiñuek, 25 urte**
Mende laurden bete du aurten Santamas Jai Komisiñuek, eta jakina, horrelako urtemuga berezi batek ospakizun berezia merezi duelaeta, Bedoñara joan ziren bazkaltzera. 36 lagun elkartu ziren eta goizeko ordu txikietan aparteko giroan zebiltzan. Zorionak, eta urte askotarako!


**Elizondo**
*kafetegia*
Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99


olentzerotarako aukerarik onen
u
udalaitz
ARRASATE
erdiko kale 42 • arrasate • tel.: 943 77 00 68

# Gaztetxea, altuago

Uarkape pilotalekuaren atzealdean egingo duten gaztetxe berriak lau pisu izango ditu. Hasieran, hiru pisuko gaztetxea egiteko asmoa zuen udalak; beraz, gaztetxearen erabilera eta banaketa birmoldatu egin behar izan dituzte.

Erabaki dutenez, lehenengo eta bigarren solairuetan gaztetxea bera egongo da; hau da, taberna eta kontzertuetarako agertokia lehenengo solairuan, eta musika taldeek entseatzeko lekua, bigarrenean. Hirugarrenean, lantegiak eta bestelako gelak, eta laugarrenean, Emakumeen Txokoa.

Orain, proiektua egiten ari den enpresak, UR&MA enpresak hain zuzen, egokitzapen berrira moldatu beharko du proiektua.




# Aitziber Uribetxeberria, kalean



Bi hilabetean Frantzian preso egon eta gero, bihar, zapatua, askatuko dute Aitziber Uribetxeberria mondragoetarra. Ohitura den moduan, herrian ongietorria egingo zaio, arratsaldeko 7etan, Seber Altube plazan, lore eskaintza, dantzari eta bestelakoekin. Ondoren, herri afaria egongo da Uarkapen.

**GABON EGITARAUA**

Eta kartzelan geratzen diren presoak gogorarazteko eta, bide batez, horiei elkartasuna adierazteko, makina bat ekitaldi antolatu ditu Amnistiaren Aldeko Batzordeak Gabon jaietarako.

**24an:** 20:00etan (Olentzeroren ondoren), kale agerraldia, Seber Altuben.
**26an:** kartelada, Seber Altuben. Ondoren, gose greba hasiko da.
**27an:** mobilizazioak.
**28an:** mus txapelketa Arrano Elkartean.
**30ean:** 19:00etan, gose grebaren amaiera.
**31n:** 00:01etan, presoen aldeko topa, Arbolapetan.
**Oharra:** gose greba egiteko Iratin eman behar da izena.




# Udalako plan berezia, jendaurrean

Udalak urteko azken osoko bilkura egin zuen eguaztenean. 11 gai zeuden aurrez ikusita eta bederatzi onartu ziren. Gaien artean, indarkeriaren kontrako hiru mozio ere bazeuden.

Horrez gain, Udala auzoko plan bereziari egindako alegazioak aurkeztu ziren, tartean auzoko alkatetzak egindakoak. Alegazio horien eraginez, egitasmoa birmoldatu beharra dagoela ere onartu zuen udalbatzarrak. Eta egindako aldaketa hauek nahiko garrantzitsuak direnez, egitasmoa berriro ere jendaurrean jarriko da hilabetez. Beraz, oraindik ere behinbehinekoa da Udalako proiektua.

Bestalde, azoka plazako 24 saltoki adjudikatu ziren osoko bilkuran. Sei bat saltoki eman barik geratu ziren.



Jasotako alegazioen ondoren, Udalako plan berezia birmoldatu egin da.

Azkenengo puntuetan ETAk egindako azken atentatuak gaitzetsi ziren. EAJrena ez zen onartu, EAk, EHk eta EBk kontra egin ziotelako. Bai, ordea, EArena, puntuz puntu bozkatu ondoren.

PSE-EEk beste mozio bat aurkeztu zuen, ETAk 2000. urtean egindako atentatu guztiak gaitzesteko.

## Buruko gaitza dutenendako egoitza

Debagoienean igo egin da hartutako buruko gaitza dutenen kopurua. Horregatik, gaixo horiekin lan egiten duen elkarteak egoitza baten eskaera egin zion Arrasateko Udalari.

### GAIXOEI LAGUNTZEKO

Errehabilitazioa egin ondoren, gaixoek hutsune bat zutela somatzen zuten elkarte horretakoek, eta gaixoak etxera bueltatzera behartuta zeudela. Horregatik erabaki dute eguneko egoitza bat irekitzea. Lehengo Gurea zinema zegoen tokian dago; 200 metro ditu eta lau pertsona arituko dira han lanean, hainbat zerbitzu eskainiz.

## Biribila txikitzen

Kataide Industrialdean dagoen biribila txikitzea erabaki du aste honetan udaleko gobernu batzordeak. Itxura denez, kamioiak eta automobilak biribil gainera igotzen dira askotan, handiegia da eta. Ondorioz, behin baino gehiagotan konponketa lanak egin behar izan dituzte.

Hori ikusita, udalak biribila orain dagoenaren erdira txikitzea erabaki du.

Seguruenik, lanak datorren urtean hasiko dira.

## Zabaleta, aurrera



Eguazten goizean bete zen Jaurlaritzaren eta udalaren arteko hitzarmena, Zabaletako gunea konpontzeko. 216 milioi pezetako inbertsioa egingo da.

## AEKri babesa

Udalak AEKri babesa emango diola onartu du aste honetan. Zortzi puntuan zera onartu da, besteak beste: AEKren lanari eta gizarteari egiten dion ekarpenari onespena ematea; AEKren kontra ikusten ari garen kriminalizazio saioa errefusatzea; epaileak deklaratzera deitutako kideen eskubideak bermatzea, eta ez espetxeratzeko eskatzea; eta AEKren kontrako inputazioak euskararen aurkako eraso politiko orokorraren barruan kokatzea.

Gambrinus garagardotegia
• Menua: bazkariak eta afariak
• Karta
• Errazioak
Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

PEUGEOT Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

# TOMAS ERRARTE (OILO HAZLEA)

# «*Garagartzako oiloak*»

**Santamas jaietako egitarauaren barruan, mondragoetar batek gure jakin-mina piztu du: Tomas Errarte garagartzarrak, hain zuzen. Murrixena baserrian bizi da, baina kaletarra ere bada, bietan moldatzen da eta. Eta ez hori bakarrik, 'ikerlaria eta asmatzailea' ere bada 56 urteko gizonezko hau. Iaztik *Oiloberri* izeneko oilo mota lortzeko ahaleginetan ari da. Hain justu, Garagartzako oilo mota horiek erakutsiko ditu Santamasetan.**

**— Nolatan oiloak?**

— Betidanik ibili izan naiz oiloekin, edozelan ere, lagun bat dut horretan maisu: Luis Mari Arana. Hura da proiektuaren gidari eta nagusia, eta orain Bartzelonan bizi bada ere, laster erretiratuko da, eta orduan, Garagartzara etorriko da, nirekin batera etxalde bat egiteko.



**— Zein oilo mota da?**

— Guk oilo arraza berri bat atera nahi dugu, gaur egun Euskal Herrian ez dagoena, alegia. Europako oilorik garrantzitsuenak, edo onenak, Frantzian eta Katalunian daude, (Tolosan babarrunak diren moduan, han oiloak). Bietatik ekarri ditugu eta hortik atera nahi dugu oilo arraza berria.

**— Zein ezaugarri izango du?**

— Kolore gorrixka, eta buztanaren eta hegoen puntak, zuriak. Horrelakorik ez dago Euskal Herrian.

**— Iaz hasi zineten, baina oraindik ez da lana bukatu...**

— Oraingoz, bi belaunaldi lortu ditugu, hau da, nahasketa egin eta oilo txikiak atera ditugu. Hortik onenak hartu eta berriz nahastu ditugu. Hala ere, orain, berriro ekarriko ditugu oilo eta oilarrak, bestela, endekatu egiten dira eta orain arteko nahasketa eta oilo berriak ateratzea beharrezkoa da.

Dena dela, guk nahi dugun kolore gorrixka eta buztanaren eta hegoen punta zuriak lortzean, kito.



**— Euskal oiloek ez dute balio nahasketa hori egiteko?**

— Bai, baina guk arraza guztiz berria nahi genuen, Euskal Herrian ez dagoena; horrexegatik *Oiloberri* izena, eta

> **«Kolore gorrixka, eta buztanaren eta hegoen puntak, zuriak dituzte *Oiloberri*ek»**

# ortu nahi ditugu»

horrexegatik joan gara Frantziara eta Kataluniara.

**— Gero, Eusko Labela edo 'Garagartzako Labela' izango du *Oiloberrik*?**

—Garagartzakoa, uste dut nik… (barreak). Guk auzoko oiloak izan daitezen nahi dugu; oraingoz, ez gara maila altuagoetara heldu.

**—Beraz, auzo-auzoko oiloak…**

—Bai. Nik zera nahi nuke jendeak esatea: 'Joño! Garagartzarrek lortu dute kalitatea duen zerbait, eta gainera, berria dena'. Garagartza gure oiloekin erabat lotuta egotea gura dugu, auzoko zerbait izatea, eta *Oiloberri* entzutean, Garagartzarekin gogoratzea. Oiloak eta garagartzarrak identifikatzea, azken batean.

**— Beraz, zein helburuekin ari zarete lanean?**

—Guretako zaletasuna da. Hori bai, merezi duela uste dugu. Oiloen okela, adibidez, oso ona da. Koipe gutxi du, jateko oso ona da…

**— Baina, etorkizunera begira baduzue planen bat, ezta?**

—Ondo ateraz gero, lehen esan bezala, etxalde bat antolatuko genuke eta orduan, bai, negozio edo enpresa bihurtuko litzateke.

Bitartean, orain arte jasotako arrautzak oparitzen ari gara inguruko baserrietan, han hazteko. *Oiloberri* izeneko oiloak baserri guztietan ezarri nahi ditugu. Eskaerarik ere badugu, Eskoriatzan eta Aretxabaletan, esaterako… uf!

**—Santamasetan zer ikusiko dugu?**

—Bi belaunalditako oiloak eramango ditugu, eta baita pasa den astean jaio ziren hirugarren belaunaldiko txitak ere.

**—Ikusgai eta salgai izango dira?**

—Ez, bakarrik ikusgai. Gu ez goaz inorekin lehiatzera, orain arte noraino iritsi garen erakustera baizik.

**— Zerbait esatea geratzen bazaizu…?**

— Esan baino, guk gure oiloak erakustea eta jendeak ikusi ditzala nahiago dugu. ■


**Etxeko lanak eta ardurak gizonen eta emakumeen artean elkartrukatzeko tailerra Arrasaten.**

Astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 20:30etara. • Urtarrilean hasi eta apirilera arte. • Matrikula: 2000 pta.



**Emakumeen tailerretan:**
- Elektrizitatea
- Iturgintza
- Brikolajea
- Pintura
- Automobilen mekanika

**Gizonen tailerretan:**
- Joskintza
- Lisatzea
- Sukaldaritza
- Garbiketa

**Izen ematea:** Gazte Bulegoan 943 77 00 65 telefonora deituta.
**Azkeneko eguna:** Urtarrilaren 15a

**Animatu eta gogoratu lanek eta ardurek ez dutela sexurik.**



Antolatzailea: ARRASATEKO UDALA **Emakume Saila** ■

Laguntzailea: EMAKUNDE



## PROFESIONALAK BEZALA

**Asun Balzola marrazkilariaren Ilustrazioa Ezagutuz erakusketa dago zabalik Monterronen. Marrazkilaritzaren inguruko bitxikeriak ikas daitezke hantxe. Baina, ordenagailuak izan du arrakastarik handiena, marrazteko programa erabiltzeko aukera ematen du eta.**

## ZELAITXOARRAK BAT



Zelaitxoarrak elkarrekin afaria egin barik zeuden aspaldian. Lehengusuek abenduaren 2an berreskuratu zuten ohitura gomendagarri hori. Batzokian afaria izan zuten, baina jakina, hori hasiera baino ez zen izan. Gaua gaztea da, eta…

## IKASITAKOA ERAKUSTEN



Santamasetako Txerri dantza herritar guztiendako da. Estropozurik ez egiteko, entseatzen aritu dira lagun hauek Lore Gazteak-eko begiraleekin. Joan den urritik dihardute entseguak egiten, eta orain… estreinaldia!

## KARTETAN, ONENAK



Bedoña auzoan, kartetan behintzat, lau lagun horiek ez dute parekorik. Auzoko jaiak izan ziren abendu hasieran, eta orduan antolatu ziren mus eta briska lehiaketatan gailendu ziren bi bikoteak. Urdaiazpiko bana eman zieten.

Sukalde altzarien fabrika eta horman-armairuak

Super Armeko

- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

# 41EKO GAZTEAK, PARRANDAN



**Gesalibar-Santa Agedako gazteak ditugu hauek, 41eko kintoak, hain zuzen. Urtero bezala, afari oparoa egin zuten, Aretxabaletako Basterralde jatetxean. Ondoren, xanpain ederrarekin topa egin zuten.**




# BETAURREKO BILA, MOTOZ

Mercedes Martinez atxabaltarrak irabazi zuen Larrañaga Optikak zozkatu zuen Scooter-a. Azaroaren 17ko ONCEko zenbaki berbera zuen txartela erosi zuen Mercedesek. Aurrerantzean, motoz joan ahal izango da bista graduatzera.

# IZENAK

**Natalia Martinez**



mondragoetarra da ARKOko publizista berria. 26 urte ditu, eta marketin alorreko Enpresa Zientzietako ikasketak egiten dihardu. Orain arte, Alecopen egin du lan, eta gurean dugu abenduaz geroztik. Ongi etorri!




Buart

LORADENDA



Honen bitartez, arrasatearrak agurtu nahi genituzke eta, bide batez, joan zen abenduaren 11n loradenda zabaldu genuela jakinarazi.



Arrosa, alstroemeria, gerbera eta bulbosa ekoizleak gara. 13 urteko eskarmentua dugu.

Ilusioz betetako pauso berria eman dugu eta gure bezeroei zerbitzu egokia ematea espero dugu.

Agur bero bat

Ignacio Zuloaga, 2 • tel.: 943 71 27 84





CB
beatriz
Erdiko kale, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 14 33

1946-2000

Gabon zoriontsuak!

Camper, Dr. Marten´s
Panama´Jack
Nature

Hispanitas
Ellos
Escaleno
Koll Flex

Lottusse
Ferrerias
Romika
Montbui

Ibai-arteren bazkide
ibai-arte



MARGA
*jantzidenda*
San Pedro 20. Bergara. Tf. 943 76 05 37




Urte berri ona izan dezazuela!

# Gabonetako hitzorduak

## 23 zapatua

**Gabon kantak Al-Andalusen**
Al-Andalus elkarteko abesbatzak Gabon kanta emanaldia eskainiko du euren egoitzan, 19:30ean. Horrez gain, Jaiotza dute han ikusgai.

**Gabon kantak Garagartzan**
Abenduaren 23an Garagartzako bizilagunak kantuan irtengo dira. 16:30ean hasiko dira, Fagor ondoko baserrietan. 19:30ak inguruan bukatuko dute, Elkartean. Han Olentzero izango dute zain.

**Jaiotza "biziduna"**
Corazon de Encina extremadurar elkartean jaiotza egingo dute arratsaldean.

**Gabon kantak**
Goikobalu kalerik kale ibiliko da Gabon kantak abesten. Iturbide egoitzan, ospitalean eta herriko kaleetan kantatuko dute.

## 24 domeka

**Olentzero Arrasaten**
Txoronpio eta Txoronpia, Olentzeroren lagunak, Arrasaten ibiliko dira postari. 12:00etan hasiko dute ibilaldia. 18:00etan Olentzero irtengo da. Zaldibartik hasi eta plazan bukatuko du ibilbidea; han Mutil dantza eta Herri dantza eskainiko dizkiote. Horren ondoren, 20:00ak aldera, Gestorek deitutako manifestazioa egingo da Seber Altuben.

## 26 martitzena

**Gabonak Iturbiden**
17:00etan bingoa izango dute Iturbide Egoitzakoek.

**Kartelada**
Kartelada egingo dute Gestorek Seber Altuben. Ondoren, gose greba hasiko da. Abenduaren 30ean bukatuko da, arratsaldeko 19:00etan. Parte hartzeko, Irati tabernan eman behar da izena.

## 28 eguena

**Erretiratuendako txokolate janak**
Garagartzara irteera egingo dute Uribarriko erretiratuen etxekoek, 16:00etan. Egoitzara bueltan, txokolate jana izango dute urtea bukatzeko. Txokolate jana izango da baita Musakolako erretiratuen etxean ere, 75 urtetik gorakoak omentzeko, 17:00etan.

## 29 egubakoitza

**Tunaren emanaldia**
Gasteizko tunak emanaldia eskainiko du Iturbide egoitzan, 17:00etan.

**Gabonetako kontzertua**
Goikobalu abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du.

**Mezak**
Jai egun hauetan ohiko orduetan esango dira mezak Mondragoen. Hala ere, Eguberri egunean meza berezia esango da herriko hainbat elizatan, gauerdian.

## 31 domeka

**Bandaren emanaldiak**
Gabon zahar egunean bi emanaldi eskainiko ditu Arrasate Musikaleko bandak: 11:30ean kalejiran parte hartuko du; eta 13:00etan, Amaia antzokian, kontzertua emango du.

**Presoen aldeko topa**
Presoen aldeko topa antolatu dute Amnistiaren Aldeko Batzordeek, Arbolapetan, 01:00etan.

## 5 egubakoitza

**Errege magoak Iturbiden**
Errege magoek opariak banatuko dituzte, Iturbide egoitzan, 17:30ean.

**Erregeen kabalgata**
19:00etan irtengo dira Errege magoak. Abaroatik, eta Arrasate zeharkatuko dute umeak agurtu, gutunak jaso eta gozokiak banatzeko.

**Errege eguna Corazon de Encinan**
Errege eguna izanik, umeendako txokolate jana antolatu dute Corazon de Encina elkartekoek. Arratsaldean izango da, euren egoitzan.




Argazkia: Andoni Urzel

# Olentzero Marrazki Lehiaketa 2000

*Olentzero joan zaigu,*
*mendira lanera,*
*intentzioarekin*
*ikatza egitea.*
*Aditu duanian*
*lehiaketarena,*
*lasterka etorri da,*
*parte hartzekotan.*



ARRASATE PRESSera etorri ziren opariak jasotzera.

*Horra horra,*
*gure Olentzero,*
*ikastetxeetako*
*umeek eginda.*
*2.000 bat margolan*
*bildu ditugu-ta,*
*hementxe dituzue*
*marrazki onenak!*





Erdiko Kale, 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 94

Ibai-arteren bazkide

ibai-arte





Anne Sanchez
3 urte





sier
4






## Nerea Ug

**Hamar urte San V**
**da ikasten. bazi**
**ro Marrazki la. Ze**
**ezberdina egi zue**
**egunkarietalak e**
**azalean ipinillent**
**egiteko.**
**Zorionak eta I**
**parte hartzail ere**



Beñat Barberena
11 urte






Julen Moyano
10 urte






ano



sier Sanchez
4 urte





Maria Heriz
5 urte





Brian Fernandez
6 urte

Ug

rte San Viatorren ari
en. ibazi du Olentze-
zki a. Zerbait
a egi zuela-eta,
etalak erabili ditu
pini lentzero

nak eta baita beste
tzal ere!

Domekan iritsiko da Olentzero gure etxeetara. Aurretik, ordea, guk berari opari bat egin nahi izan diogu. Eta horretan herriko eta Almeneko neska-mutikoek lagundu digute. Olentzeroren Marrazki Lehiaketan parte hartu dute. Guztira, 2.000 marrazki eskatu ditu ARKOk eta kurtso bakoitzeko bat aukeratu du ARRASATE PRESSerako.

Harro egon daiteke Olentzero, horrenbeste aurpegirekin ikusten dutela jakinda.







anol Dominguez
9 urte



Olaia Zabalo
8 urte



Asier Perez
7 urte


J. ANTZIDENDA
LASAGABASTER
Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55
ETXE APAINKETA


SAFARI
Lore
Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50
Paloma Picasso
Gabonetako usainik goxoenak
RALPH LAUREN
ROMANCE
FALL IN LOVE
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Ibai-arteren bazkide
ibai-arte

# GABON KANTAK, IRRATI ETA GUZTI



Extremadurako Gabon kantak eta herri abestiak lagun, egunpasa ederra egin zuten Arrasatera etorri ziren 12 elkarte extremadurarrek, Corazon de Encina barne. La Merceden egin zuten IX. Gabon kanten jaialdia, eta Extremadurako COPE irratiak emititu zuen ekitaldia.

# ESTREINALDIA, ERGUINEN



Badakizue non agertu den aurrenekoz Olentzero? Bada, Erguin Herri Eskolan. Hango umeak oso-oso zintzoak dira nonbait, eta haiei egin zien bisita Olentzerok joan den martitzenean. Ondorengo egunetan Arrasateko beste hainbat ikastetxetan ibili zen.



943 344 494
www.deika.com
• TELEF. FINKOA
• TELEF. MUGIKORRA
• AHOLKULARITZA INFORMATIKOA
• INTERNET
• TELEFONOGUNEAK
DEIKA telekom
ENPRESA ETA PARTIKULARREI ZUZENDUTAKO ZERBITZUA
ERRENTERIA Morrongilleta, 1 M. Etxeberria, 1
BEASAIN Nafarroa Hirib., 25
URRETXU Areizaga, 1
Eta orain Arrasaten ere bai:
ARRASATE Kontzeziño, 12
BANATZAILE OFIZIALA: Euskaltel

GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK
ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera: 09:30 - 20:00
Larunbatetan: 08:00 - 14:30
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

Comercial ARPE
Gabonetan aldatu zure orrazkera
Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

## Emaitzak

**A taldea**

Goma 2 2 - Leya 2
Serengeti 2 - You Know 2
Makanaki 3 - AL Ion 1
Betrayer 4 - Katxiporra 9
IKP 3 - Txeyenex 2
Chapime Dribling 4 - Bikain 2
Lasagabaster 1 - Kanp. Harrobia 3
Komando Alp. 3 - Aurrera Bolie 4

**B taldea**

Txotx 3 - New Makai 6
Iristu 4 - Fraguel Gol 1
Irati STS 7 - EPEH 2
KJ Basati 7- Sas T 1
Etxerat Tab. 8 - DKB Kobate 2
Kamasutra 6 - Bokajarro 2
Usotz Potroak 9 - Alai Gozokiak 1
AT Celaya 8 - AKTA 1
Pepelus 5 - Rayo Aldeano 4




**GOLAK URTEA AMAITZEKO**

Beste jardunaldi batzuetan gol gehiago sartu izan dituzte Zaldibarren, baina urtea amaitzeko bederatzi gol ere ez dago gaizki. Usotz Potroak eta Katxiporra taldeek sartu zituzten joan den asteburuan, Alai Gozokiak eta Betrayerren aurka, hurrenez hurren.

Gogoratu Zaldibarko areto futbol txapelketa 2001. urtean itzuliko dela eta orduan ere, saiatuko gar a asteroko jarraipena egiten.

Zuek ere, ondo pasa Gabonak! Baina, zaindu!

KANPAZAR FIAT
Alfa Romeo
*Jai hauetan zorionak opa dizkizuegu*




***Tailerra:** Bizkaia Etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 41 98*
***Erakusketa:** Araba Etorbidea, 32 • Tel.: 943 79 77 66*


Barceló Bidaiak
Gabon zoragarri eta urte berri bikain
bat opa dizuegu. Datorren milurtekoa
zoriontsua izan dadila guztiontzat
Zorionak!
Maalako Errabala, 33 • ARRASATE • Tel.: 943 79 70 11


MULTIOPTICAS
MULTIOPTICAS-ekin OPARITAN EZBERDINTASUNA
7.900 pta GABONETAN 5.950
14.500 pta GABONETAN 11.500
16.000 pta GABONETAN 11.000
3.400 pta GABONETAN 2.400
8.990 pta GABONETAN 6.800
18.700 pta GABONETAN 13.700
3.950 pta GABONETAN 2.600
8.800 pta GABONETAN 6.850
EGUZKIA
azkenengo bilduma
% -20
Dolce & Gabbana
CK
GUCCI
MOSCHINO
Ray-Ban
Christian Dior
marka guztietan
bollé
FLORENCE
VOGUE
arnette
GIORGIO ARMANI
ZORIONAK
R.P.S. N° 164/99
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
BERGARA
ARRASATE
ORDIZIA

# ETXEAN NAHI DITUGU!

SENIDEAK



JOSEBA GARITAONANDIA



JON AGIRRE



JOSU URIBETXEBARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



KEPA URRA



JOSU ARKAUZ



UNAI PAROT



PEDRO GURIDI



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



ENRIKE LETONA



JOSE GABRIEL URIZAR



ARATZ GOMEZ



AITZIBER URIBETXEBARRIA

ERREFUXIATUAK

EUSKAL PRESOAK



EUSKAL HERRIRA!!

**Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:**
**Irati, Etxerat, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Jaizale, Kimetz**

# David Zaitegi Mondra futbol taldeko entrenatzailea

**Arrasate Kirol Proiektuaren eta Mondra futbol taldearen arteko zubi-lana egiten du David Zaitegik. Bera arduratzen da AKPko futbol kontuez eta, era berean, taldeen entrenamenduak gidatzen ditu. 1988an eta 1989an jaiotako neska-mutikoak ditu bere kargu. 1988koak datorren urtean Mondra futbol taldeko infantiletan arituko dira.**



**Zenbat ume dabiltza futbolean?**

— 1988an jaiotakoen bi talde dabiltza: 35 bat ume. Almen, Oñati eta Bergararen aurka jokatzen dute hauek. Adin horretako nesken hiru talde ere ari dira, hiru entrenatzailerekin. Neskek 11 eta 12 urte dituzte eta hurrengo mailakoak askoz ere nagusiagoak dira. Jauzi handia dago batetik bestera.

1989an jaiotako zazpi talde ditugu: guztira, 70 ume.

**Zein da zure lana, zehazki?**

— Lau entrenatzailerekin egiten dugu lan: bi neska eta bi mutil. Entrenatzaileak eta epaileak gazte mailako jokalariak dira eta infantiletan nirekin batera hasi ziren jokatzen.

Aitor Laskurain (Mondrako jokalaria), Arkaitz Garmendia, Aritz Ibarguen eta Ander Ruiz de Azua (lehen mailako gazteak) dira entrenatzaileak. Epaile, ostera, Kepa Arkauz, Josu Jimenez, Patxi Orobengoa, Jon Galdos eta Jon Loiti (2. gazte mailako jokalaria).

Bestalde, Jose Manuel Okon-ek (Musakolako arduraduna) eta Andoni Ezkurrak (Atxabalpeko arduraduna) ere laguntzen digute; izan ere, futbol zelaiak antolatu behar izaten ditugu: neskek, eta baita alebinek ere, zazpinako taldetan jokatzen dute Atxabalpen. Horrez gain, Musakolan ere jokatzen dute.

**Lehiakortasuna garrantzitsua da futbolean?**

— Lehiakorrak izatea ona da, baina guztia neurrian.

Gure kasuan, esaterako, 1988an jaiotakoak gero Mondrako infantiletan hasten dira, eta horregatik, maila batean lehiatzea ondo datorkie.

**Zer nolako maila dute herriko futbolari gazteek?**

— Jeneralean, maila ona dago. Iaz infantiletan ondo ibili ziren. Gainera, futbola zalbatzea zen helburua, eta hori, behintzat, lortu zen. Beraz, lanean segituko dugu.

1988koak astean birritan entrenatzen dira

1989koek astean behin teknifikazioa egiten dute, eta horrez gain, zapatuetan AKPko beste hitzordu batzuk dituzte



**La Merced ikastetxeko nesken futbol taldea.**



**San Frantzizko Xabier ikastolako nesken futbol taldea.**



**Arrasate ikastetxeko nesken futbol taldea.**

## ERRUGBIA
### Eibarren, galdu

Arrasateko errugbiko talde nagusiak galdu egin zuen joan den asteburuan. Eibarren jokatu zuten eta bi taldeak nahiko parekatuta ibili ziren arren, azkenean eibartarrek tanto gehiago egin zituzten. Markagailuan garbi geratu zen eibartarrak hobeak izan zirela, edo behintzat, tanto gehiago egiteko gai izan zirela. Azken emaitza 10-0 izan zen.

## SASKIBALOI
### Azkenengoa, galdu

Kenci Arrasate taldeak ligaren lehen aldiko azken neurketa galdu zuen. Calahorrako taldeak mailari eusteko irabazi beharra zuen. Mondragoetarrek, berriz, bigarren aldirako txartela badute. Hori dela eta, Kenci Arrasateko talde nagusiko jokalariak ez zituen deitu entrenatzaileak.

Kontuak horrela, 78 - 66 galdu zuten Kenci Arrasatekoek. Dena dela, aipatzekoa da Errioxako taldeak 12 jokalari izan zituela eta kenci Arrasatek, aldiz, sei baino ez.

Joan den asteburuan jokatu zuten aurtengo azken partida saskibaloi taldeek. Urte berria arte oporrak dituzte.

## KARATE
### Ezinean

Karate txapelketatik esku hutsik itzuli ziren Saioa Gimnasioko karatekak. Entrenatzaileak aurretik ere esan zigun beste gauza batzuk prestatzen ibili direla eta ez zutela emaitza oso onik espero, baina dirudienez, horrez gain, epai-arauak ere aldatu egin dituzte, eta horrek jokoz kanpo harrapatu ditu Saioakoak. Iñaki Muñozek azaldu digunez, «2004ko joko olinpiarretara eraman nahi dute karatea, eta horregatik, ikusgarriagoa izatea nahi dute. Hori dela eta, epai-arauak aldatu dituzte. Horren ondorioz, lan egiteko modua ere aldatu beharko dugu». Kontuak kontu, Iker Zabartek, esaterako, aurreko arauekin irabaz zezakeen borroka galdu egin zuen, arau berriak tarteko.

## FUTBOLA
### Egoera kezkagarrian

Lehen erregionaleko Mondra futbol taldea ez dago, ez, egoera oso erosoan, sailkapenari begiratuz gero. 13. dago Mondra, liderrarengandik 15 puntura. Joan den asteburuan ere galdu egin zuen Raul Leibaren taldeak. Atxabalpen aritu ziren Soraluzeko taldearen aurka eta alde txikiarekin bada ere, 0-1, bisitariek irabazi zuten. Horren aurrean, Jose Luis Ezkurra Mondrako lehendakariak egoera aztertu beharko dela adierazi zigun.

Bestalde, erregional mailako neskek irabazi egin zuten etxean. 2-0 amaitu zen Almenen aurkako neurketa.

## XAKEA
### Urteko azkena

Arrasate A taldeak Eibarren aurka jokatu zuen eta oso erraz irabazi zuen (3,5-0,5). Arrasate B-k bina berdindu zuen Hondarribiko Marlaxkaren aurka.

Arrasate A taldea bigarren da sailkapenean, Urnieta liderrarengandik puntu batera. Hala ere, bost jardunaldi gelditzen zaizkie denboraldia amaitzeko, eta tartean Urnietak Arrasate B-ren aurka jokatu beharko du.

Eukal Herriko ordezkaria Josu Tornay izango da. Hamar egun iraungo du txapelketak, Iruñean. Nafarroako eta Espainiako federazioek antolatu dute.

## ESKUBALOIA
### Golak bai, baina

Arrasate Almen eskubaloi taldeak gol asko sartu zituen joan den asteburuko partidan. Baina, gehiago sartu zizkioten. 28-30 galdu zuten Loiolaren aurka.

Lehenengo zatian loiolarrak aurretik izan ziren eta bigarrenean Arrasate Almenek partida berdindu zuen. Baina, urduritasuna nagusitu zen etxeko jokalariengan.

Hala ere, atezainaren lana aipatu beharra dago, gol asko sartu zizkioten arren, azkenaldian lan bikaina egiten ari da eta.

## Santamasetako herri krosa

Joan den zapatuan jokatu zen Santamasetako 23. herri krosa. 150 lasterkarik parte hartu zuten. Aspaldiko partez, gainera, ez zuen euririk egin. Umeen mailan 93 neskamutikok eman zuten izena eta koadrillen arteko proban, berriz, 47 lagun aritu ziren.

Aurten, Portaloitik irten beharrean Uarkapeko atetik irten ziren nagusienak, eta hara itzuli ziren sei kilometro egin ondoren. Lasterrena Iban Silvar izan zen eta emakumezkoetan, Belen Dominguez.

**NAGUSIAK**
Iban Silvar
Saioa Benitez

**BETERANOAK**
Alfonso Luelmo
Marijose Gil

**JUNIORRAK**
Ander Ansoategi
Alaitz Perez de Arenaza

**KADETEAK**
Ibai Irastortza

**KOADRILLEN LASTERKETA**
1 Arrasate Triatloi taldea
2 A las 11 en la Konze
3 Musakola
4 Presoak etxera
5 KJE

**UMEEN SAILKAPENA**
**7 URTEKOETAN**
Andoni Otxandiano eta Irune Salterain
**8 URTEKOETAN**
Danel Mazmela eta Ane Usobiaga
**9 URTEKOETAN**
Beñat Agirre eta Jone Agirregabiria
**10 URTEKOETAN**
Imanol Arantzabal
**11-12 URTEKOETAN**
Lander Errasti eta Oihana Balanzategi
**13-14 URTEKOETAN**
Unai Bengoa

# Besaideren neguko eskaintza, abian

Besaide mendizale elkarteak hamaika eguneko medikuntza eta sorospen ikastaroa antolatu du. Mendi federazioarekin elkarlanean antolatu du, eta 40 lagunek, gutxienez, eman beharko dute izena ikastaroak egiteko. Otsailaren 5ean hasiko da eta martxoaren 15a arte luzatuko da. Saio gehienak hitzaldiak izango dira, eta bukatzeko bideo emanaldi bat eskainiko dute. Parte hartzearren ziurtagiria ere banatuko dute. Ikastaro hau Euskal Herriko hainbat lekutan eskaini da, eta Besaidekoek adierazi digutenez, izen handiko jendeak eskainiko ditu hitzaldiak.

Saioak Monterronen izango dira 19:00etan eta izena emateko epea, jadanik, zabalik dago. Horretarako Besaidera jo behar da urtarrilaren 2an, 3an, 8an, 9an, 10ean, 15ean edo 16an. Besaideko bazkideek 3.000 pezeta ordaindu beharko dute eta ez bazkideek, 5.000.

- **Otsailak 5** Ramon Garate: Mendiko istripuen prebentzioa.
- **Otsailak 7** Jon Armentia: Bizitza salbatzeko urgentziazko neurriak.
- **Otsailak 12** Jon Armentia: Lesioen balorazio orokorra.
- **Otsailak 14** Raul Garcia: Mendiko kirolen alde pedagogikoa.
- **Otsailak 19** Ramon Garate: Elikatzea eta hidratatzea mendian. Higiene alderdiak.
- **Otsailak 21** Kepa Lizarraga: Giza gorputza eta ingurumena.
- **Otsailak 26** Sergio Maiztegi: Mendiko kirolegarako prestakuntza fisikoa.
- **Otsailak 28** Xabier Garaioa: Altitudearen osasun alderdiak, espedizioak eta trekinak.
- **Martxoak 5** Antxon Burcio: Sorospena mendian. Zelan jardun eta erreskate taldeen zeregina.
- **Martxoak 9** Ricardo Arregi: Hotzak eragindako patologia: izozteak, prebentzioa eta tratamendua.
- **Martxoak 15** Azken ekitaldia.

# Eskalada txapelketa arrakastatsua

Joan den zapatuan jokatu zen I. boolder txapelketa Uarkapen. Guztira, 30 lagun elkartu ziren eta baita ikusle asko ere. Mutiletan Juanmi Merino eta nesketan Olatz Altzua, izan ziren irabazleak. Hala ere, rokodromoa ezagutzera ematea izan da txapelketa hau antolatzeko arrazoi nagusia. Sei hilabete dira zabaldu zela eta jende ugari ibiltzen ei da han.



Rokodromoaren lau guneetan aritzea zen kontua, eta horietan ahalik eta abilezia handiena erakustea. Horrela, punturik gehien lortzen zuenak irabazi egingo zuen. Finalean zortzi eskalatzailerik trebeenak lehiatu ziren.

Nesketan, bi lagun ibili ziren: Olatz Alltua mondragoetarra eta Oihane Epelde bergararra. Biek ere, ederki erakutsi zuten maila bikaina dutela, eta azkenean, gutxigatik, mondragoetarra gailendu zen.

✗ Ezkontzak
✗ Bataioak
✗ Jaunartzeak
✗ Enpresa bazkariak eta lagunartekoak



PARKINA ETA TERRAZA

BASTER-ALDE

JATETXEA

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 24 58

LOS VAQUEROS

Zorionak eta urte berri on!

Zerkaosteta, 5
Tel.: 943 79 97 55

# Txiki eta ipuin txokoak, Txikilandiako berritasunak

Aurten XI. aldia du Txikilandia jolas parkeak, eta hainbat berritasun dakarzkigu Txatxilipurdik. Horietatik nagusiak, bi txoko berri dira: txiki txokoa eta ipuin txokoa.

**TXIKIENENDAKO**

«Txikilandiako beste guneetan parte hartzeko txikiegiak diren umeendako gune baten beharra zegoela ikusi genuen», dio Rebeka Torresek, Txatxilipurdiko kultura arduradunak. Esan, eta egin. Txiki txokoan puzgarriak, eskulan tailerrak, mozorroak eta jolasak izango dituzte gazte-gazteenek. Horrela, umeetatik hasi eta helduetaraino, adin guztiendako lekua dago Txikilandian.



Musakolako kiroldegia jolas parke erraldoi bihurtuko da.

Ipuin txokoak ekintza lasaiak egiteko aukera ematen du: ipuin tailerrak, kontakizunak eta «Txikilandian dagoen iskanbilatik babesturik, goxo-goxo irakurtzeko lekua izango da», dio Rebekak.

**TAILERRAK ETA PATINETEA**

Aurretik zeuden eskaintzak hobetuz joan dira. Gurasotekan, adibidez, ikuskizuna egingo da egun batean. Tailerrak ere berrituz joan dira: Pokemon tailerra, ordenagailurako joku berriak, sukaldaritza tailerra, ile apaindegia, bidezko merkataritza, Monopolya eta karaokea, besteak beste, eskainiko dira aurten. Eta modan dauden patineteak egunero zozkatuko dira. Hantxe izango dira Txikilandiako ohiko ekintzak ere: puzgarriak, igeritokia, kirola eta kartak, esaterako.

## Jokin Zaitegiko bi finalistak, irabazle

Jokin Zaitegi itzulpen sariketan bi irabazle izan dira aurten: Xabier Yurramendi donostiarra, *Norberak bere burua lagun dezan* lanarekin, eta Andoni Sagarna usurbildarra, *Ura* lanarekin. Lehenak ingelesetik egin du itzulpena, eta Andonik, italieratik.

**ARGITARATU**

Bi finalisten lanak parekoak zirela erabaki zuen epaimahaiak. Horrela, 150.000 pezeta eta trofeoa jaso zituen bakoitzak. Gainera, urtero bezala, AED elkartea, antolatzailea, hainbat aldizkarirekin harremanetan jarriko da hizlauak argitaratzeko.



**LAU GUTXIAGO**

Aurten zazpi lan aurkeztu dira. Hiru ingelesetiko itzulpenak ziren; hiru gaztelaniatikoak, eta bat italieratikoa; iaz baino lau gutxiago, beharbada aurten gaia -ura- aurrez ezarri zutelako. Uraren inguruan, oso ikuspegi desberdinak aukeratu dituzte sarituek: garapena eta ingurumena. Nerea Isastik, Iratxe Muxikak, Karmelo Uribarrenek, Arantzazu Loidik eta Xabier Mendigurenek osatu dute epaimahaia.

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

Expres kafetegia
- Ogi egin berria
- Olagarroa eta *riveiro* ona
- Urdaiazpiko egosia
- Kazuelatxoak

Maalako errebala, 8 • Tel.: 943 77 13 87

# Ikur onenarengatik, 100.000 pezeta

Badira bost urte Arrasateko Emakumeen Kontseilua sortu zela, herriko gizonen eta emakumeen aukera berdintasunaren lan egiteko, eta taldeko kideek erabaki dute ikur edo logotipoa falta zaiela. Hori aukeratzeko, lehiaketa antolatu dute.

Emakumeen Kontseilua bat-batean identifikatzeko balio duen diseinu grafikoa behar du talde horrek. Lan, gutun, kartel eta beste elementu eta ekintza guztietan agertuko da. Irabazleak 100.000 pezeta eskuratuko ditu, eta arrasatear onenak, 25.000.



**OINARRIAK**

Gizabanako edo enpresek, banaka edo taldeka, parte hartu ahal dute, nahi bezainbat lan aurkeztuz. Ahal dela, DIN-A4 edo DIN-A3 orrietan egin beharko da lana, baina ez da onartuko euskarri informatikoan bakarrik bidaltzen den logotiporik. Lelo edo izenorde sistemaz egingo da aurkezpena. Lehiakideak lanaren azalpen laburra gehitu ahal izango du. Udaletxera bidali beharko dira ikur guztiak, Emakume Sailari zuzenduta. Otsailean jakinaraziko dira irabazleen izenak.

# Urteari adio, bandaren doinuekin

Gabonak girotzeko eta, era berean, 2000. urteari adio esateko, kontzertua eskainiko du Arrasate Musikalek.

**EGUERDIKO KONTZERTUA**

13:00etako kontzertua ekitaldi nagusia izango da. Amaia antzokian arituko dira, Eduardo Arzamendiren zuzendaritzapean, eta ondoko abestiak joko dituzte: *Cortes de la Frontera* pasodoblea, *Mirentxu* zarzuelaren aurrekaria, *New York, New York*, *Valses Romanticos* suite laburra, *Cabaret*, *Olenzaro Gabon* zortzikoa eta *A Christmas Dance Party nº 1*.



**DENETARIKO ESTILOAK**

Arzamendik aukeratzen ditu piezak, eta pasodoblea eta zarzuela bezalako estilo klasikoak doinu modernoagoekin tartekatzea du gogoko.

11:30ean kalejira batekin alaituko dituzte kaleak.


King´s
Ile apaindegia
Zeureganatu estilo berria!
Zarugalde, 23-behea
Tel.: 943 79 84 88
ARRASATE







Zorionak eta urte berri on!
Diego Valor
Ile apaindegia
San Lorenzo, 2-behea (Gizonezkoak) Tel: 943 76 58 08
Zubieta, 38-behea (Binakoa eta estetika zerbitzua) Tel: 943 76 37 70
BERGARA

Udalatx Inmobiliaria
- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Aholkularitza Fiskala
- Errentamenduak
- Kontratuak
Etxebizitza berriak eta bigarren eskukoak salgai
Gabon zoriontsuak izan!
Maalako Errebala, 27-behea • Tel.: 943 79 59 99


TXIKILANDIA
2001
ARRASATEN
MUSAKOLAKO
KIROLDEGIAN
URTARRILAREN
2-3-4 eta 5-ean
Bonoak eta sarrerak aurrez salgai Txatxilipurdin
ordutegia
2, 3 eta 4-ean:
-Goizez:
11etatik 2etara
-Arratsaldez:
4retatik 8retara
5-ean:
-Goizez:
11etatik 2etara
TXATXILIPURDI
LAGUNTZAILEAK
ARRASATE KIROLAK
IKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK
ibai-arte
FAGOR
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
AKADEMIA BASTIDA
LIZARRALDE KIROLAK
MIKEL LASA, S.A.
EROSKI
Arrasateko Kontsumitzaileen Elkartea
KAJOI
NACEX
Bidalketa azkarrak
BAQUE KAFEA
JOMA
ZURI LURI
ANTOLATZAILEA
kutxa
BABESLEA
ARRASATEKO UDALA

# Albiste iturri gehiago Arrasate Irratian

Gabonak gainean ditugu, gehienok oporrak hartuko dituzue, eta horien artean asko umeak izango zarete. Ba, etxeko txikiendako sorpresa pila bat prestatu ditugu. Datorren astean, goizeko 10etan abiatzen den Arrasate Irratiko autobusera igotzeko gonbita egiten dizuegu. Zuen lagunak ekarri nahi ditugu hona; Takolo, Pirritx eta Porrotx-i eskatu diegu 107.7ko geltokian zain egoteko. Txatxilipurdiko lagunek ere gurean izango direla agindu digute, hurrengo astean Txikilandia parkean izango denaz berba egiteko. Baina, ez horretarako bakarrik! Etxean aspertuta egon beharrean gure autobusera igotzen bazarete, umeen parke erraldoirako sarrerak eskuratu ahal izango dituzue. 11:15ean tarte berezia izango dugu, zuretzako batez ere, txiki! Piztu irratia eta parte hartu asmakizunen lehiaketan.

Eta Gabonetan gaudenez, Gabon giroan murgilduko da gure autobusa: Gabon kanta eta hainbat kontu gehiago ditugu zuei eskaintzeko. Ez galdu, beraz, autobusa! Zure bila joango gara, 107.7ko geltokira, datorren martitzenetik aurrera. Ordura arte, ondo izan, eta Arrasate Irratiko lagunen partetik, Eguberri on!




arrasate **irratia**

FM 107.7

**ASTELEHENA - OSTIRALA**

| | |
|---|---|
| 09:00 | **Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.** |
| 09:55 | **Eguneko hitzorduak.** |
| 10:00 | **Igo autobusera I.** |
| 11:00 | **Albistegia.** |
| 11:15 | **Igo autobusera II.** |
| 12:30 | **Agenda, eskelak...** |
| 12:45 | **Albistegi nagusia.** |
| 14:00-18:00 | **Errepika.** |

**Abenduaren 28an norbaiti trago xelebre bat eskaini nahi badiozu, aukeratu Arrasate Irratiko edalontziak. Deitu 943 71 17 31era lehenbailehen! Single sorta bat zurea izan daiteke!**

kontzertuak

BERGARAKO **JAM ETA GO-JAM**EKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.
Abenduak 29: **Platero y tu** (Sarrera **1**)
Abenduak 23: **Dut + Anari + Lisabo** (**2** sarrera)
(22:00etan izango dira bi kontzertuak)

Azken eguna: datorren egubakoitza.
Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

**Izen-deiturak:** ..........................

**Tel.:** ..........................

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31.
Tel.: **943 71 17 31.**

**Postontzia**

**943 71 17 31**

**ZURE**

**kexak**
**zalantzak**
**eskaintzak/eskariak**
**gomendioak**
**zorion-agurrak**

**EGITEKO**

Logotipo lehiaketa

**Arrasateko Emakumeen Kontseiluak lanean dihardu 1995etik Arrasateko gizon eta emakumeen aukera berdintasunaren alde.**

- **Sari nagusia:** 100.000 pta.
- **Akzesita:** 25.000 pta. Arrasatear batek aurkeztutako lan onenarentzat.
- **Epea:** 2001eko urtarrilaren 31.

Oinarriak Arrasateko udaleko Emakume Sailean.
Tel.: 943 79 09 00 / 943 79 41 39
emakume@arrasate-mondragon.net

Antolatzailea: ARRASATEKO UDALA Emakume Saila

Laguntzailea: EMAKUNDE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **ALAI GARAJEA PEUGEOT.** Urarte, 12. **Bergara.** 943 76 22 96 | | | | |
| VW Golf GT 1.6 | | | | *2 |
| Peugeot 205 1.4 | | | 3 ate | *2 |
| Renault 19 1.7 TXI | | | 3 ate | *3 |
| Opel Astra 1.4 | | | | *4 |
| Renault 19 1.9 D | | | | *4 |
| Opel Astra 1.6 | | | | *5 |
| **AUTOLEYMA.** Aitziturri, 5. **Bergara**. 943 76 09 30 | | | | |
| Peugeot 406 SR 1.8 | | | AG-ABS-Airbag | *7 |
| Peugeot 306 XSI | | | AG-ABS-Airbag | *7 |
| BMW 318 ci | | | AG-ABS-Airbag | *8 |
| BMW 320 | | | AG-ABS-Airbag | *8 |
| Peugeot 306 XRD | | | AG | *4 |
| Peugeot 205 Diesel | | | | *3 |
| **BERRIA GARAJEA.** Amillaga, 49. **Bergara**. 943 76 22 96 | | | | |
| Ford Fiesta 1.1 TRIP 3 | SS-AN | 1992 | IK-3 ate | *2 |
| Seat Toledo 1.8 GT sport | SS-AL | 1992 | AG-IE-IK-IZ-KE-LD-AH-ABS | *3 |
| Ford Mondeo RS v6 | SS-BG | 1999 | AH-IE-IK-IZ-KE-KL-LD-LK | *7 |
| Peugeot 309 GTX | SS-AK | 1991 | LD-KE-IZ-IK-AH | *3 |
| Ford Orion 1.6 ghia | SS-AD | 1989 | IK-LD-AG-IE-IZ | *1 |
| Peugeot 306 1.4 XN | SS-AW | 1996 | 3 ate | *4 |

**A**: Aleroia **AG**: Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagunak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **ES**: Eguzki Sapaia
**IE:** Ispilu elektrikoak **HT:** Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoa
**KL:** Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
**LKA:** Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoa **UAT:** Urrutiko aginte tresna

***1:** 300.000 PTAra arte
***2:** 300.000-500.000 PTA
***3:** 500.000-750.000 PTA
***4:** 750.000-1.000.000 PTA
***5:** 1.000.000-1.500.000 PTA
***6:** 1.500.000-2.000.000 PTA
***7:** 2.000.000-3.000.000 PTA
***8:** 3.000.000 PTAtik aurrera

AGUSTIN
Automobilaren karburazio eta elektronika
Airtel
Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58

Larringan
GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETA
Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE
Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETA

Dena AUTO
Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97

| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **CHAPIME TAILERRAK**. San Andres auzoa, 5. **Arrasate**. 943794522 | | | | |
| Opel Vectra 1.7d GL | BI-3467-BL | 1992 | LD-IZ-KE | *3 |
| Opel Astra 117td GL | SS-9632-AT | 1994 | LD-IZ-KE-Airbag | *4 |
| Citroen Xantia 1.6x | SS-7692-AS | 1994 | LD | *4 |
| Citroen Xantia 1.9td sx | GI-9297-AW | 1994 | LD-IZ-KE-AG | *5 |
| Renault Clio 1.9d | SS-3128-BG | 1999 | LD-IZ-KE-BI Airbag-AG-Hifi mandoa bolantean | *5 |
| Peugeot 405 1.7td SRDI | SS-4019-AM | 1992 | LD-IZ-KE-AG | *2 |
| **TALLERES MECA.** San Andres, 8. **Arrasate.** 943 71 21 67 | | | | |
| Citroen Xantia 2.0 HDI 90 CV SX | | 1999 | | *7 |
| Nissan Primera Stilo 2.0 TD | | 1999 | | *7 |
| Renault Megane 1.9 DTI RXE | | 1999 | | *7 |
| Renault Clio 1.6 si 5p | | 1999 | | *5 |
| Renault Twingo Pack | | 1999 | AG | *5 |
| Renault Clio 1.9d RN 5p | | 1999 | | *5 |
| Renault Megane Alize | | 1999 | AG | *6 |
| Citroen Xantia 1.9TD SX Climat | | 1994 | | *5 |
| Peugeot 306 Coupe DT | | 1997 | | *5 |
| Renault Espace 2.2i Helios | | 1994 | AG | *5 |


**GARAJE MURILLO**
Mekanika orokorra
Leizeaga 4 • Bergara
Tel.: 943 76 13 84
IVECO


SAN MARTIN
KARROZERIAK
Autoaren konponketa orokorrean
San Juan Auzoa: Barrutitxiki pabiloiak, 1
Tel.: 943 76 07 97
20570 BERGARA

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!
Txorno
Auto-errekanbioak
Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

Dena AUTO
Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97


AUTO DESGUACES
BERGARA
Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)
*BIGARREN ESKUKO PIEZAK*
*PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK*
*GRUA ZERBITZUA*

PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tel./Faxa: 943 79 29 93
ARRASATE
Lizaur arkitektoa, 7
Tel.: 943 78 05 60
OÑATI



Aurtengo Gabonetan aspaldiko ohitura bat berreskuratuko dute Garagartzan: etxez etxe eta baserriz baserri Gabon kantuak abestea, hain zuzen. Halaxe egiten zuten 50eko hamarkadan, eta auzotarrek ere majo eskertzen zuten ahalegina. 'Kantu buelta' bukatu ondoren, askaria egiten zuten auzotarrengandik jasotako diruarekin. Horrelaxe egin zuen, jakina, 1955. urteko abenduaren 24an, argazkiko neska talde honek, Juanito Castilloren zuzendaritzapean ikasitako kantuak abestu ondoren.

Atzeko lerrora begiratuz, eta ezkerretik hasita, Natividad Iria da lehenengo neskatila, Purita Otxoa bigarrena, Rosita Uribarren hirugarrena, eta Milagros Azkuaga azkena.

Aurreko biak Begoña Heriz eta Marivi Orobengoa.

Gabonetan irteteaz gain, Santa Ageda bezperan ere ibiltzen ziren kalean. Halaxe egin zuten, Juanito Castillo hil zen arte; beraz, garagartzar askok ohitura horren berririk ez zuten, eta aurten izango dute berriro aukera.

***Argazkia:***
*Rosita Uribarren.*
***Berriemailea:***
*Begoña Heriz.*








- Garajeko ateak
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko aginte tresnak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak





JUBAR®
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 •
Faxa: 943 79 08 17 • 110 Postakutxa • ARRASATE

Urtea zahartu da,
badator berria,
ospatu dezagun ba,
guk Eguberria.
Nahi genuke ikusi,
munduan irria,
ta alaitasunez blaitu
gure Euskal Herria.

Egilea: Tania Diaz (DBH)
Marrazkilaria: Olaia Velasco (DBH)




erguin herri-eskola
Udala bidea, z/g
Tel.: 943 79 77 74

San Andrés
Alfonso VIII, 1
Tel.: 943 79 00 44

MUSAKOLA HERRI ESKOLA
Elkano, 10
Tel.: 943 79 04 49

Arrasate Aretxabaleta INSTITUTUA
Santa Teresa, 25 · ARRASATE · Tel.: 943 79 20 38
Etxebarri auzoa, z/g · ARETXABALETA · Tel.: 943 79 79 00


Etorkizun hurbilean...
MECA
ARRASATE Tel.: 943 71 24 72 • BERGARA Tel.: 943 76 40 68